



### 3 UDALA

#### Hainbat gai mahai gainean izan ziren Udalbatzarrean

Asteartean ekaineko ohiko Udalbatzarra egin zen. Bi ordu baino gehiago iraun zuen bilkuran hainbat gai jorratu ziren eta horien artean, amiantoa duten eraikinen zentsua egitea, Udaletxeko ate guztietan automatikoki irekitzeko sistema bat instalatzea edo Udalak, Aterpeak eta Murias enpresak, herriko komertzioetan erosketak egiten dituztenek parking batean "doan" edo "abantailekin" aparkatu ahal dezaten, hitzarmena sinatzea adostu zen.



Aurkezpen jendetsua egin zuten atzo arratsaldean Sorgin Jaiakoko kideek. 15. urtez sorginduko dute herria, ekainaren 27tik uztailaren 2ra bitartean.

### 6 KIROLA

#### Uretako kiroletan ere lasarteoriarrak fin

Lehenengo asteburuan bi herriarrek uretako bi kiroletan lan ederra egin zuten. Maialen Chourraut piraguista Munduko kopako proban garaile izan zen La Seu d'Urgellen. Herritarra K1 mailako azkarrena izan zen kanalean, ibilbidea 99.61 segundo denbora eginaz. Bestalde, Xabier Elizegi igerilariak Menorcan, 25 kilometrotako proba egin eta seigarren amaitu zuen. Sei ordu eta 45 minutu egin zituen itsasoan igerian.



2016 urteko San Pedro Jaietan hamabost urte beteko dira Sorgin Jaiak lehen harritxoa jarri zutenetik. Kokaleku eta antolakuntza talde ezberdinak izan dira urte hauetan guztietan, baina beti izan dute argi, eta erakutsi dute, festa eredu alternatiboa Lasarte-Orian posible dela.

San Pedro Jaietako egitarau berezia aurkeztu zuen Sorgin Jaiak atzo, 15. urteurrenekoa. Aner Lozano eta Jone Yeregi izan ziren hizlariak.

Sorgin Jaietako kideek azpimarratu modura, "nork esango zukeen, orduan, txosnen debekua eta gero, oraindik ere mantenduko genituela oztopo guztien gainetik".

Agerraldian gogoratu zuten, "duela 15 urte Udalak ezarri zuen debekuekin jarri genuen lehen harritxoa, kioskoaren okupazioarekin koloreztatzen hasi ginen egun ezagutzen ditugun festak".

15 urte hauen errepaso ere egin zuten: "Kamioi Rock

ekintza sendotzeari ekin genion, anbulategi zaharreko txosnak izaera eta festa alternatiboak egiteko gai ginela erakutsi digu. Loidi Barrengo guneak gorputza eman du eta Okendoko txosnak duela 15 urteko ameslarioi arrazoi ematen digu".

#### Omenduak

Era berean, aurtengo omenduak ezagutzera eman zituzten, "15 urte hauetan, barre, negar, txosna desmuntatu, amestu, mozkortu, elkar ezagutu, maitatu, txandak egin, borrokatu, sinetsi, bileretan parte hartu, dantzatu, txosna muntaia egin,... azaldu ezin diren gauzak eta sentimen-

duak gertatu zaizkigu, ondorioz bizipen hauek Sorgin Jaietan izan dituztenen omenez botako dugu txupina".

Honetaz gain, eskerrak ere eman zizkieten agerraldian, "eskerrik asko lanean aritu zareten guztioi, parte hartu eta parte hartuko duzuenoi eta besarkada bat parte hartu ezin duzuenoi".

#### Hamaika ekintza

Sorgin Jaietako lagunek ekainaren 28an emango diete hasiera ospakizunei, 21:30ean.

Hala ere, bi ekintza izango dira aurretik. Ekainaren 27an, 17:00etan, umeentzako jolasak izango dira Okendo plazan eta ekainaren 28an bertan, 19:30ean, ohitura bihurtu den koadrilen jaitsiera.

Musika arloan, San Pedro egunean, Elebeltzetik aterako den Kamioirocka izango da. Gozategi, Bar Remigio, Hilotz eta Bolbora, Elektrotxufila, Sutura, Txapel Punk, La som-

bra del vaso, Joxe Replay edo Bad Sound System taldeek alaituko dituzte egunak.

Kokalekuei dagokionez ere, aurreko leku berrikuntzak daude. Ekainaren 30ean, Landaberri BHI aurrean egingo dira ekintza gehienak eta uztailaren 1eko arratsaldeko kontzertuak Villa Mirentxun izango dira.

Lehiaketak ere izango dira, egitarauan ohikoak diren Oriako jaitsierari, bakailao txapelketari edo mus txapelketari orain patata tortila lehiaketa gehitu zaio.

Askariak ere izango dira, San Pedro egunean sorgin afaria eta ekainaren 30ean afari potea. Bitartean 15 urte hauetako atzera begirakoa egingo da bideo emanaldi baten bitartez.

Umek ere izango dute tartea. Ekainaren 30ean izango da hori, Irrien Lagunak eta Rafafa eta Toni magoaren eskutik.



## UDAKO ESKAINTZA 2016

Udako ikastaro trinkoak  
100 ordu  
(60 uztailan - 40 irailean)

Hizkuntza eskakizunen  
azterketak prestatzeko  
( B1, B2 eta C1)



#### EUSKALTEGIAK

IKASTARO TRINKOAK / INTENSIVOS  
Aprende euskara cerca de casa  
Azterketak prestatzeko  
ON-LINE IKASTAROK ERE BAI!



#### 2 ASTEKO BARNETEGIAK

EUSKARA ESKOLAK  
EUSKARAZ BIZITZEKO  
AZTERKETAK PRESTATZEKO



#### FAMILIA BARNETEGIAK

EUSKARA IKASTEKO  
SEME-ALABEKIN EUSKARAZ ARITZEKO



#### BARNETEGI IBILTARIAK

OINEZ ZEIN BIZIKLETAZ  
MINTZAPRAKTIKA EGITEKO

#### Munteri AEK euskaltegia

Geltoki kalea, 17, behea  
20160 Lasarte-Oria

943 37 28 63 - lasarte@aek.eus  
www.munteri.blogspot.com.es

## Neure kabuz



Mailu Arruti

## Oporrak, "el pueblo"n

Txikitan uda etortzen zenean eta zehatzago abuztua, herria husten zen. Oporrak pasatzera "el pueblo"ra joaten ziren eta beste fauna bat azaltzen zen Lasartera zaldiekin batera, "kabalistik". Lehengo inbasioaz gain, udan madrileño jende hura. Horrela bizi genuen orduan.

Urteak pasata, ama gaztea nintzelarik, "el pueblo"ra joaten ziren haien seme-alabak gureekin batera zebiltzan ikastolan, pinturan, musikan, dantzan, kiroldegian e.a. Eta beraien "el pueblo"ko abenturak kontatzen zizkiguten umezain plazan geunden bitartean kafetxo bat edo beste hartuz. Urteetan hartu dugu Monterrubio de la Serenako oliba olio bikaina gure otorduetan. Beraien herriko ondo irabazitako fama duena alafede. Aurtengo Aste Santuan ziklo bat itxi dugula sentitu dut. Hainbeste entzundako "el pueblo" ezagutu dut. Gure alaba eta bere lagunak (krisia dela eta) "el pueblo"ra joan dira oportretan. Eta gu ere etxera bueltan "el pueblo"tik pasa ginen. Ez dut sekula ahaztuko besape alturaraino azulejatua zegoen "el pueblo"ko etxe tipiko hartako pasilloan elkarri eman genion besarkada. Begiak dir-dir genituen denok. Azkenean gu ere "el pueblo"-ko parte ginen.

Ipar ala hego, ondo orekatuak behar ditugun hemisferioak gure burmuineko ezkerreko eta eskuinekoak bai dira.

## Zorion agurrak



Julen

Zorionak txapeldun!! 6 urte!! Muxu erraldoiak zure guraso, anai eta senideen partez!!



Izadi

Zorionak printzesa zure bigarren urtebetetzean! Zure gurasoen partez, muxu asko!



Ariane

Zorionak gure etxeko iratxoari! Muxuak Katixa, aita eta ama.



Mirari

Dagoeneko I!!!! Zorionak guztion partetik!!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 37 14 48,  
txintxarri@txintxarri.eus edo  
txintxarri.eus web orrialdeko  
formularioa erabili dezakezue.

## Azoka txikia

## Higiezinen Eskaintza

- Apartamentoa alokatzen da Cala de Fines-trat-en (Alacant). Bi gela, egongela, sukaldea, bi komun eta terrazarekin. Horretaz gain, igerilekua eta padel pistarako sarrera. Hondartzak 200 metrora geratzen da. Informazio gehiagorako, 667 731 456.
- Mobil home bat alokatzen dugu Landetan uztailaren bigarren hamabostaldian (17-31) sei pertsonentzat egokia. Igerileku klimatizatua (sauna eta jacuzziarekin) eta kanpoan igerilekuak tobogan eta uretako jolasekin. Aste bakarra edo hamabostaldia alokatzen da. Harremanetarako, 943 369 231.
- Txalet dotorea alokatzen dut Huelvan, El Nuevo Portil herrian. Luxuzko urbanizazioan hondartzatik oso hurbil. Hamabostaldita udan. 943 376 115.

## Lan eskaintza

- Zerbitzari baten bila gabiltza. Ibilgailua beharrezkoa da. Kurrikulumak helbide honetara bidali: [enplegaukera@gmail.com](mailto:enplegaukera@gmail.com).

## Lan-eskaria

- Eraikuntza lanetan laguntzaile edo orgatila eramaten lan egingo nuke, baita pertsona adinduak zaintzen ere. 674 477 255.
- Pertsona adinduak zaintzeko externa edo orduka lan egiteko prest. Esperientzia eta erreferentziarekin 617 761 423.
- Adineko pertsonak, zein umeak zaindu, ospitalean zaintza gauak egin edo etxeko lanak egiteko prest nago. Asteburu eta jaiegunetan ere lan egingo nuke. Piedad, 632 754 243.
- Gizon edadetuak zaindu, kalera lagundu, ospitalean zaintza egin edo baserri lanak egiteko mutila eskaintzen da. 618 342 007.
- Atariak, bulegoak edota etxeak garbitzen egin nahi nuke lan. Nagusiak ere zainduko nituzke. Elena 673 25 65 66
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest. 943 404 015/606 661 048
- Larunbatetan garbiketa lanetan lan egingo nuke orduka. 634278198.

## Jaiotzak

## Jaiotzak

- Laura Garcia Lopez, ekainaren 9an.
- Amets Amutxastegi Salsamendi, ekainaren 8an.



## Heriotza

- Pepita Irujo Aguirre, ekainaren 12an, 87 urte zituela.

## Farmazia Goardiak

## EGUNEKOAK: 9:00-22:00

<b>Ostirala, 17</b>	
De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Larunbata, 18</b>	
Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
<b>Igandea, 19</b>	
Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
<b>Astelehena, 20</b>	
Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
<b>Asteartea, 21</b>	
Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
<b>Asteazkena, 22</b>	
Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
<b>Osteguna, 23</b>	
Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
<b>Ostirala, 24</b>	
Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
<b>Larunbata, 25</b>	
De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Igandea, 26</b>	
De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Astelehena, 27</b>	
Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652


**GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero**  
Echeveste Elozegi, Elkano 9  
Hernani, Tel.: 943 552087

## Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal eskalategia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

## Diruz laguntzen duten erakundeak

## Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Laguntzailea



## Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 371 448**  
G-20407557

## Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

## txintxarri

## Erredakzioa:

Maidet Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez.

[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

**Publizitatea:** Arantxi Zulaika  
**publizitatea@ttakun.eus**

## Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

## Informatikoa:

Xabier Amadoz

## PLENOA

# Gai ugari aztergai ohiko udalbatzarrean

## Udaletxeko ate guztietan automatikoki irekitzeko sistema bat instalatzea adostu zen

**Bi ordu pasatxo aritu ziren korporazioko kideak astearteko ohiko udalbatzarreko gai ordeneko puntuak aztertu eta eztabaidatzen. Besteak beste, adostu zuten hiru aldeko hitzarmen bat sinatzea Udalak, Aterpeak eta Murias enpresak, herriko komertzioetan erosketak egiten dituztenek parking batean "doan" edo "abantailekin" aparkatu ahal dezaten. Udalarenak diren amiantodun eraikinen errolda bat ere egingo dute.**

TXINTXARRI

**K**orporazioko kideek Orlandoko biktimei aipamena eginez ekin zioten ekaineko ohiko udalbatzarri.

Hamalau aldeko bozka eta hiru abstentziorekin (LOAD Lasarte-Oriak Ahal Du), A-1 Okendo HIEari buruzko akats bat zuzentzeko dokumentua onartu zuten. Bizitegi-eraikinen beheko solairuko lokaletan etxebizitzaren erabilera ezartzea arautzen duen ordenantzari ere hasierako onepena eman zioten, hamar aldeko bozka (PSE, EAJ eta PP) eta zazpi abstentziorekin (EH Bildu eta LOAD).

Astearteko plenora eraman ziren Lasarte-Oriako bake-epaile titularra eta ordezkaria izendatzeko proposamenak ere. Izarra Begoña Gaminde eta Susana Zurutza proposatzen ditu, hurrenez hurren. Hamaika aldeko bozka (PSE, LOAD eta PP) eta zazpi abstentzio (EH Bildu eta EAJ) jaso zituen.

**Amiantodun eraikinen errolda**  
EH Bilduk plazaratutako mozioetako bat amiantoari buruzkoa izan zen. Koalizio abertzaleak eskaera batzuk egin zizkion Udaltaldeari: egiteko errolda bat herri-

ko amiantodun eraikinei buruz, amiantoari aurre egin behar dioten langileei prestakuntza eta formazioa eskaintzea, amiantodun etxebizitzetatik substantzia hori erretiratzeko prozedura abiatzea eta programa bat diseinatzea eta biztanleria kontzientziatzea. Onartua izan zen proposamena hamalau aldeko bozkarekin, bi abstentziorekin (EAJ) eta aurkako batekin (PP).

### 'Lasarte-Oria 2030' plana

EH Bilduk proposatu zuen beste ekinbideetako bat 'Lasarte-Oria 2030' plan estrategikoa burutzea izan zen. Korporazioko kideek ez zuten onartu proposamena. eta PSE-EEK zuzenketa alternatiboa aurkeztu zuen. Horretan, Udal Gobernuari eskatzen zaio Planean Kontseilu Aholkularian "diagnostiko zabal bat" egiteko Udaleko Arau Subsidiarioei buruz; behin azterketa hori eginda, hori erabiliko litzateke gaur egungo arauak aldatu eta legediara doitzeko. Bozketaren emaitza honakoa izan zen: hamahiru aldeko eta lau abstentzio.

### Irekitze sistema automatikoa

EAJk eta PSE-EEK bi mozio transakzional aztertu zituzten. Lehe-



Udal korporazioko hamazazpi kideek ohiko udalbatzarra egin zuten asteartean.

nengoan, bi alderdiek proposatu zuten hiru aldeko hitzarmen bat sinatzea Udalaren, Aterpea merkatarikari elkartearen eta Murias eraikuntza enpresaren artean, herriko komertzioetan erosketak egiten dituzten biztanleek "doan" edo "abantailekin" aparkatu ahal izateko parking batean. Korporazioko kide gehienek onartu zuten mozio hori; LOAD bakarrik abstentitu zen.

Bigarren mozioa udaletxeko ateak automatikoki irekitzeko sistema bat ezartzeari buruzkoa zen. Estitxu Alkorta EAJren bozeramaileak zehaztu legez, herriko biztanle guztien irisgarritasuna hobetzeko "beste urrats" bat emango luke Udalak neurri horrekin. Aho batez izan zen onartua mozioa.

### Eskolaz kanpoko jarduerak

LOAD alderdiak "jarduerak osagarri eta eskola-orduz kanpoko murrizketak" salatze aldera adierazpen instituzional bat plazaratu zuen. Alderdi horren aburuz, datorren ikasturtera begira "90 ACEX eskolaz kanpoko jarduerak programa" desagertuko dira, "zentroetako langileen jarduerak nabarmen eraginez".

Mozio honek ere babes zabalagoa jaso zuen; EAJk ezik, beste guztiek alde bozkatu zuten.

Honetaz gain, aho batez onartu zuen udalbatzarrek ekainaren 28a "lesbiana, gay, transexual, intersexual eta Queer-en nazioarteko eguna"-ri buruzko adierazpen instituzionala.

### Galdera eta erreguak

EH Bilduk Atsotak zaharren egoitzari buruz galdetu zuen. Erresidentzian bost egoiliar berri sartu dira berriki, eta hamar eguneko zentroan. EHBilduk salatu zuen batzordean jakin zutela Udalak ez duela Cleceren kontratua aldatu, eta egoiliar horiek "berme juridikorik gabe" daudela, eta "akats administratibo larria" dela. Horren harira, galdetu zuen ea nork baimendu duen pertsona horiek ingresatu ahal izatea. Jesus Zaballos alkateak erantzun zuen "Gipuzkoako Diputazioaren erabakia" izan dela hori eta gehitu zuen "kontratua aldatzen" ari direla uneotan, Clecerekin batera.

Azkenik, herritarren txanda etorri zen. Mayi Bengoetxea herritarrek errefuxiatuak bizitzen ari diren egoera latzaren inguruan hitz egin zuen.

## GURASOS

## Giza hesia igandean

Zubietan egitekoak diren erraustegiak sortzen duen kezka azalertzeko GuraSOS taldeak "Haurren babeserako familia eta gizarte hesia" ekimena antolatu du igandean Donostian eta bertan parte hartzeko deia luzatu dute.

Eguerdiko 12:00etan abiatuko da Antiguoko tuneletik Alderdi Ederrerraino, desfile moduan. Nagusiak eta seme-alaba zaharrenak beltzez eta seme-alaba bakarrak eta txikiak zuriz jantzita joatea eskatu dute. Haurrek, gainera, zapi gorri bat maskara moduan eramanango dute. Amaieran ekitaldi txiki bat egingo da.

## ZABALETAKO JAIK

## Zozketako irabazle bila

Zabaletako Jaietan egindako zozketako zenbaki irabazlea, 7970 da. Onuradunak txartelean agertzen den telefono zenbakira deitu behar du.

## ERREFUXIATUAK

## Elkartasun ekintzak

Gipuzkoako Herreraren aldeko Platafomak igandean errefuxiatuekin elkartasuna adierazteko bizikleta-martxak egingo ditu Donostiara.

Bizikleta martxetako bat, Zarautzetik atera eta Txikiardiko bidegurutzetik igaroko da 10:45ean. Donostiako Boulevardrean Irun eta Hernanitik ateratako martxekin bat egin eta erdialdean ibilaldia egingo dute. 13:00etan, elkarretaratzema-nifestazioa egingo da.

# Dantzak emango dio amaiera jaiari

**K**ukuka Antzerki eta Dantza eskolako lagunek hamabostaldiko azken egunetan sartu dira.

Gaur helduen taldeak 'Itxaroten' antzerkia taularatu du. Bihar eta etzi berriz, dantza taldeen txanda izango da. Bihar, arratsaldean dantza garaikideaz gozatuko da. Igandean, goizez euskal dantza saioa eta arratsaldean euskal dantza sorkuntza izango dira.

### Antzerki harrobi handia

Eskolako txikien eta LH6koen antzezlanak eta DBH1 eta 2 mailako musikala ikusi ahal izan dira aste honetan. Bart gauean ere gazteak izan ziren oholtza gainean Vygotsky cafe lana eskaintzen.



Gaztetxoek urtean zehar ikasitakoa erakutsi zuten astean zehar.




## Orlandoko biktimak gogoan

**O**rlandoko biktimen oroimenez elkarretaratzea egin zen astearte eguerdian udaletxe zaharrean. Era honetara, Udalak Orlandon egin diren LGBTB-komunitarearen kontrako atentatu terrorista gaitzesten du eta bere elkartasuna agertzen die biktimei.

Lasarte-Oriako herritarren ordezkari moduan, Udalak bere elkartasuna agertzen die

biktimei, haien senitartekoei eta nahigabezko une hauetan bat eginda dagoen Estatu Batuetako herri osoari.

"Atentatu horien ankerkeriari intolerante eta fundamentalistek kendu nahi diguten horrexekin erantzun behar diogu: demokrazia, justizia eta askatasun gehiagorekin", azaldu du Udalak prentsa-ohar bitartez.



# Baietz 40~~ordu~~ egun euskaraz

300 Ahobizi eta 3.000 Belarriprest behar dira. Izena eman ezazu!

**Aurten Lasarte-Orian ez dugu Euskararen 9. Maratoiko biharamuna igarotzeko astirik izango. Izan ere, Euskararen Maratoiaren barruan apustu berria jarriko baita martxan, Baietz 40 egun euskaraz! Asteartean aurkeztu ziren erronkaren nondik norakoak eta herritarren parte hartzea berebizikoa izango da. Anima zaitetzte!!! Izan Ahobizi edo Belarriprest!!!**

Euskaraz ulertu behintzat egiten duten herritar guztiak gonbidatuta daude urriaren 23an hasi eta abenduaren 3an amaituko den *Baietz 40 egun euskaraz!* erronkan parte hartzera. Asteartean egindako prentsaurrekoan adierazi zuten modura, Udaleko eta Ttakuneko ordezkariak, Euskararen Maratoiko zortzikoteak eta herriko euskaltegi eta ikastetxe guztietako ordezkariak herritar guztioi jotzen dieten herri-erronka bat da *Baietz 40 egun euskaraz!* apustua.

Armairutik irteteko erronka honek iraungo duen 40 egunak 6 astetan banatu dira. Belarriprestek, erronkak dirauen 6 astetan jokatuko dute Belarriprest gisa. Ahobiziek, berriz, astebeterako ematen dute hitza.

### Armairutik irten?

Gure gaztelaniazko hizkuntza ohituratik ateratzea eta hizkuntza portara euskarara ekartzea da armairutik irtetea. Hori oinarri hartuta erronkan parte hartzeko bi aukera daude, Ahobizi edo Belarriprest izatea.

Ahobiziak euskarazko jokaera aktiboa hartuz, armairutik aterako diren herritarrek dira. Astebetez, euskaraz egingo diote ulertzen duenari, bai ezagunei, baita ezezagunei ere.

Bakoitzaren erronka-astea hasi aurretik, izena eman duten Ahobizi guztiak bildu egingo ditu antolakuntzak. Identifikazio txapa emango zaie, eta erronkari ahalik eta erosoan heltzeko, aholku batzuk ere prest izango dira.

Belarriprestei dagokienez, Ahobizien euskarazko aktibotasuna ondo hartzen dutela adierazten duten herritarrek dira, hau da, dakienari euskaraz aritzeko gonbitea egingo diotenak.

Euskararen Maratoiaren asteburuan txapa bat emango zaio bakoitzari, Belarriprest dela adierazten duena. Txapa hori soinean eraman beharko du sei astez, erronkak irauten duen bitartean, hain zuzen.

Erronka aurrera eraman ahal izateko 300 bat Ahobizi eta 3.000 Belarriprest behintzat behar dira.

### Erronkan parte hartu

Erronkan parte hartu ahal izateko hiru baldintza bete behar dira. Lehendabizikoa, Lasarte-Orian jaio, bizi edo lan egitea. Bigarrena, 16 urtetik gorakoa izatea (2000. urtean edo lehenago jaioa izatea) eta hirugarrena, izena ematea.

Azken pauso hau aurrera eramateko, bi era daude: diptikoa edo webgunea.

Ahobizi edo Belarriprest izan nahi duten herritarrek diptikoa eskura ditzakete udal eraikinetan,

Ttakun KEko bulegoan, ikastetxe eta euskaltegi guztietan; herriko hainbat komertzioan ere izango dira datozen egunetan. Betetako diptikoa jasotako puntuetan entregatu ahal izango dira.

Izena digitalki ere eman ahal da. Horretarako, [40egun.euskararenmaratoia.eus](http://40egun.euskararenmaratoia.eus) helbidean sartu eta Ahobizien edo Belarripresten formularioa bete besterik ez da egin behar. Argibide gehiago ere (FAQ) webean bertan topa daiteke.

Antolatzaileek azpimarratu dutenez, harremanetan jartzeko baliagarriak diren eremuak bete behar dira: izen-abizenak, jaioturtea, e-maila eta telefonoa. Izan ere, erronka hasi baino lehen Udala harremanetan jarriko baita Ahobiziek.

Era berean, Ahobizien izena ematea Euskararen Maratoia baino lehen egitea gomendatzen dute.

Hau guztiaz gain, izena emate kopurua nola dagoen jakin ahalko dela aurreratu zuten. Udaletxeko balkoian Belarriprestak eta Ahobizien ezarriko dira. Hauetan urria bitartean, zenbaki eguneratuak egingo dira ikusgai.





### BELARRIPREST izan nahi dut!

Belarriprest izateko, euskaraz **ulertu** behar duzu ezinbestean.

#### Belarriprest izanda:

- Jarrera positiboa erakusten duzu: "bai, ongi hartzen dut norbaitek niri euskaraz egitea"
- Gonbitea egiten diozu euskaraz dakienari zuri euskaraz egiteko: "Euskaraz ulertzen dut. Egidazu lasai euskaraz!"
- Lagundu egiten diozu euskaraz egin nahi duenari armairutik ateratzen.



### AHOBIZI izan nahi dut!

Ahobizi, euskaraz bizi. Ahobizi izan nahi baduzu, **astebetetz euskaraz bizi**tzeko erronkari eutsiko diozu.

#### Zer esan nahi du horrek?

- Ingurunean (etxean, lagunartean, lantokian...) dituzun **ezagunekin** euskaraz egingo duzu, baldin eta euskaraz ulertzen badute. Ezagun horiekin **beti eta erabat** egingo duzu euskaraz zazpi egun horietan, nahiz eta haiek zuri erdaraz erantzun.
- **Ezezagunekin** hitz egiterakoan, zuk **lehen hitza euskaraz** egingo duzu, eta ulertzen badizute, euskaraz jarraituko duzu. Berdin da haiek zuri erdaraz erantzutea.

## Nola parte hartu dezaket?

### 1) Izen ematea:



- Izen emate orriak udal eraikinetan, Ttakuneko bulegoan, ikastetxe eta euskaltegi guztietan lortu ditzakezu. Herriko hainbat komertzioan ere izango dira datozen egunetan. Betetako orriak jasotako puntuetan entregatu ahal izango dira.
- Online: [40egun.euskararenmaratoia.eus](http://40egun.euskararenmaratoia.eus) webgunean zuzenean egin daiteke izen ematea.
- Baldintzak: Lasarte-Orian jaio, bizi edo lan egitea eta 16 urtetik gora izatea.

### 2) Erronka baina lehen:

- Izen emateari jarraipena egiteko, udaletxe berriko balkoian "**belarrimetroa**" eta "**ahometroa**" egongo dira ikusgai.

### 2) Erronkan zehar:

- **Belarriprest:** Maratoiaren asteburuan txapa bat emango dizugu, Belarriprest zarela adierazten duena. Txapa hori soinean eraman beharko duzu sei astez, erronkak irauten duen bitartean, hain zuzen.
- **Ahobizi:** Maratoia hasi aurretik, izena eman duzuen Ahobizi guztiak bildu egingo zaituztegu. Identifikazio txapa emango zaizue, eta erronkari ahalik eta erosoan heltzeko, aholku batzuk prestatuko ditugu.



**Irten armairutik!**

## 6 aste, 40 egun

Euskararen Maratoiko 40 ordu jarraipena emango zaie berau amaitutakoan: 40 orduz gain, 40 egunez euskaraz arituko gara, hau da, 6 astez.

Belarriprestek, erronkak dirauen 6 astetan jokatu dute belarriprest gisa.

Ahobiziek, berriz, astebeterako ematen dute hitza. Urritik abendura bitarte, Ahobiziek 6 txandatan banatuko dira, erronka aurrera eramateko.

## Bideo tutoriala

Zein da zehazki Belarriprest eta Ahobizien papera erronkan zehar? Izan ditzakezuen zalantzak argitzeko, Ahobizi eta Belarriprest egoerak biltzen dituen bideo tutorial bat prestatu dugu!

[40egun.euskararenmaratoia.eus/bideotutoriala](http://40egun.euskararenmaratoia.eus/bideotutoriala)



## Informazioa

[40egun.euskararenmaratoia.eus](http://40egun.euskararenmaratoia.eus), Ttakun Kultur Elkartea (943 37 14 48) edo Udaleko Euskara-Zerbitzua (943 37 61 84)



## LABURRAK.-

## Buruntzaldea IKTKo gaztetxoak bikain etxean

Urtea ezin hobeto amaitu dute Buruntzaldea IKTKo benjamin eta alebinek. XXVII. Lasarte saria jokatu zuten Udal Kiroldegian, iragan larunbatean. Hori baino lehen, taldeko gaztetxoek, aurrebenjaminen, erakustaldi polita eskaini zuten guraso eta lagunuen aurrean.

2008an jaiotako haurrek ikuskizun bikaina eskaini zuten igerilekuan. Adin horretako zortzi haur aritu ziren, 25 libreetako froga burutzen. Guraso eta lagunuen txalo artean, ederki ibili ziren gaztetxoek. Proba amaitu ondoren, guztiak domina bana jaso zuten, egindako lanagatik.



Erakustaldiaren ostean, benjamin eta alebinak XXVII. Lasarte Sarian lehiatu ziren. Benjamin txikiak 25 tximeleta edota 50 bizkar, bular zein estilo librekoa zuten aukeran. Handienek, tximeletako 50 edota 100 metroko bizkar, bular zein estilo librekoa. Gaztetxoak ederki aritu ziren; gehienak podiumera igo ziren. Easo eta Usurbil igeriketa taldeetako igerilariak ere aritu ziren bertan.

## Aizpea Arroyo garaile Getxon

Beste txapelketa bat gehitu du aurtengo garaipenen bildumara Aizpea Arroyo LOKEko gimnastak. Getxokoan lehiatu zen iragan igandean; senior mailan konpetitu zuen, uztaiekin, eta podiumaren maila gorenera aipatu. Garazi Gomez eta Alazne Gonzalez taldekideak mazekin aritu ziren, eta laugarren postuak erdietsi, senior eta jubel mailan hurrenez hurren.

Denboraldia igande honetan bukatuko dute gimnastek, Udal Kiroldegian erakustaldia eginez, 11:00etatik aurrera. Ondoren, LOKE klubeko alor guztiak Araeta jabetxean elkartuko dira, 14:30ean, denboraldi amaierako bazkaria egiteko. Egun bat lehenago, larunbatekin, LOKEko judo taldeak egingo du erakustaldia, kiroldegian bertan, 10:30ean.



## Beltzak errugbi taldeen denboraldi amaiera

Iragan larunbatean Zarauzko Asti zelaian elkartu ziren Beltzak errugbi eskolako kideak, denboraldi amaierako festa egiteko. Goizean zehar kontaktu fisikorik gabeko eta errugbiarekin lotutako hainbat joko egin zituzten: guraso eta seme-alaben arteko norgehiagokak, tokata errugbia, zapiaren jokoak... Ondoren, 200 bat lagunek elkarrekin bazkaldu zuten zelaian bertan. Arratsalde partean, berriz, bigantxa eta ur-jokoekin biribildu zuten festa.

16 urtez azpiko taldeak asteburu honetan hitzordu berezia edukiko du. Bartzelonara joango dira, Camp Nou estadioan jokatu den Frantziako Top14 Ligako errugbi finala ikustera. Hori baino lehen, Bartzelonako Quimics taldearen kontra lagunarteko norgehiagoka bat jokatu dute. Igandean, berriz, asteburu ezin hobeto amaitzeko, barrankismoarekin lotutako jarduerak egingo dituzte denek elkarrekin.

Bestalde, 14 urtez azpiko taldeko jokalarari Julen Beloki, Mikel Ibisate, Unai Pelaez eta Gavi Gavilan Gipuzkoako selekzioarekin aritzeko deituak izan dira. Larunbat honetan lau eskualderen arteko txapelketa bat jokatu dute: Araba, Bizkaia, Cote Basque eta Gipuzkoak berak hartuko dute parte.

## KIROL AGENDA.-

## ARETO-FUTBOLA

Ostirala 17

Udal Kiroldegia, 20:00etan

Andoain - Urnieta

Buruntzaldeako 6. futbol topaketa.

Udal Kiroldegia, 21:00etan

Lasarte-Oria - Usurbil

Buruntzaldeako 6. futbol topaketa.

Larunbata 18

Michelingo areto-futbol kantsa, 17:00etan

Finalerdietako bi irabazleek areto-futbol finala jokatu dute. Ordu berean, hainbat kategoriatako futbol 8 partiduak ikusi ahaliko dira Michelingo futbol zelaian.

## IGERIKETA

Larunbata 18

Azpeitia, egun osoan zehar

Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutuek Udako Gipuzkoako txapelketa jokatu dute, goiz eta arratsaldeko jardunaldietan.

## PIRAGUISMOA

Ostirala 17/Igandea 19

Pau, Frantzia, asteburu osoan zehar

Maialen Chourraut piraguistak Munduko Kopako beste proba bat jokatu du. Kanporaketak ostiralean hasiko dira.

## UR-KIROLAK.-

## Seu d'Urgelletik Menorcara

Maialen Chourraut piraguistak urrea irabazi zuen Seu d'Urgellen; Xabier Elizegi igerilariak, aldiz, 25 km-ko proba egin zuen Menorcan

**Piragua baten gainean Seu d'Urgelleko kanala ziztu bizian igarotzen zein itsaso zabalean igerian, herritarrek zeresana eman zuten pasa den asteburuan. Maialen Chourrautek urrea kolokatu zuen Seun, Munduko Kopako proban; Xabier Elizegik, berriz, 25 kilometroko proba osatu zuen Menorcan, seigarren postua eskuratuz.**



Maialen Chourrautek urrea jantzi zuen Seun, Munduko Kopako proban.

EFE

## IÑIGO GONZALEZ

Kirol guztietan ematen dute zeresana lasarteoriatarrek, baita uretakoetan ere. Pasa den asteburuan, Maialen Chourraut piraguista eta Xabi Elizegi distantzia luzeko igerilariak izan ziren protagonista, Seu d'Urgellen eta Menorcan, hurrenez hurren.

Pare bat hilabete ere ez dira falta Rion jokatu diren Olinpiar Jokoak hasteko. Bertan ariko da Chourraut, emakumezkoen K1 modalitatean. Abuztuan Brasilerantz abiatuko diren kirolari gipuzkoarren artean bera da dominaren bat jantzeko aukera gehien dituenetako bat. Eta, azkenaldian bezala jarraituz gero, ez litzateke harritzekoa izango podium gainean ikustea, sasoi batean dagoela erakusten ari baita behin eta berriro.

Iragan asteburuan nagusitasunez irabazi zuen Seun jokatuako Munduko Kopako proba. 99.61 segundo behar izan zituen ibilbidea osatzeko. Bi eta lau segundora helmugaratu ziren, hurrenez hurren, Jessica Fox eta Ricarda Funk bigarren eta hirugarren sailkatuak. "Ikaragarria izan da; gutxitan ausartzen naiz korron-

tearen aurkakoak diren atek kanpoaldetik zeharkatzen, eta behin baino gehiagotan errepi-katu nuen hori igandean; oso pozik nago burututako probarekin", adierazi zuen herritarra. Berezia izan zen pasa den asteburuko garaipena, Maialenek urrezko domina kolokatu zuen egun berean Ane alabak hiru urte bete baitzituen. Ospakizuna bikoitza izan zen, hortaz.

Asteburu honetan ere ospakizunekin jarraitu gura du herritarra. Gaurtik hasita, Munduko Kopako beste proba bat jokatu du, Paun.

## Menorcako irlan igerian

Ultraebre 2014an, Manhattan 2015ean, eta Menorca aurtan. Xabi Elizegi igerilariak beste distantzia luzeko erronka bati aurre egin dio, eta baita gainditu ere. Menorcako irlan aritu zen igerian pasa den igandean; 25 kilometroko proba burutu zuen, 6. postua eskuratuz horretan, uretan sei ordu eta 45 minutu igaro eta gero.

"Oro har, gustura geratu naiz Menorcan egindakoarekin; muskularki nahiko ongi bukatu nuen, bizkarrean urratu txiki bat besterik ez dut izan", zehazten du herritarra.

Eguraren ekin zion Elizegik probari. 4. postuan zihotan, Miquel Sunyerrekin batera. "Lasai ekin zion probari, erritmoa igo eta berehala aurrerantz joan baitzen", oroitzen du herritarra. Bosgarren postu horri eutsi zion hurrengo kilometroetan ere, 15.etik aurrera itsaso eta haize zakarraren eraginez lasterketa "zaildu" arte. "18. kilometroan igerilari bat gerturatu zen atzetik, eta 20. ean inoiz pasa ez zaidan zerbait sentitu nuen: hutsik nengoen, indarrrik gabe. Dena den, 6. postua mantendu nuen amaierara arte".

Aurretik, distantzia luzeko beste bi erronka eginak ditu Elizegik: Ultraebre eta Manhattan. "Aurreko horiek oso ongi burutu nituen, banekien noizbait 'pajararen' bat sartuko zitzaidala, eta Menorcan izan da; esperientzia hori bizitzea ere aberasgarria da, hortik ere ikasten da eta". Aipatu hiruetatik batekin geratu beharko balu, Manhattangoa litzateke: "Orain arte burutu dudak probarik bereziena izan da; ilusio handia egiten zidan, eta asko prestatu nuen".

Itsaso, haize...baldintza klimatologiko kaskarrei aurre egiten iaioa da Elizegi. Menorcan, beste faktore batengatik egon zen arduratuta: marmokak. "Iaz, animalia horientatik, aldatu egin behar izan zuten ibilbidea, eta, hala ere, igerilari asko erretiratu egin ziren", aipatzen du. Igandean, "krema eta antzeko produktuak soinean" itsasoratu zen Elizegi. Haren eta gainontzeko parte hartzaileen harridurarako, marmoka bakar batekin ere ez zuten topo egin 25 kilometroetan. "Zorte ikaragarria eduki genuela esan ziguten amaieran", oroitzen du herritarra.

Udan, inguruko zeharkaldietan ariko da Elizegi. "Hurrengo erronka? Auskaloi!".



Xabier Elizegi igerilariak, proba bati ekin aurretik.

FESTAK.COM

## Agenda

Gaur, 17:00etatik Okendo plaza



### Birziklatu ekimena plazan

Birziklatu eskuz egindako egurrezko jostailu erraldoiez gozatu ahalko dute 6 ea 12 urte bitarteko haurrek. Lasarte-Oriako gazte talde batek dinamizatutako ekitaldia izango da. Iaz bizikletentzako zirkuitua eraiki zuten gazteek egurrezko bide seinaleak etab. baliatuz. Aurtengoan, snooker holandarra, XXL tamainako Mikado jolasa, Lehorreko curling-a edota eskalada jolasak izango dira gaztetxoentzako eskuragarri. Haurtan parte hartzeko deia egiten dute antolatzaileek.

## Lasarte-Oria

### Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Gaur, 20:00etan

Antzerki eta dantza hamabostaldian, 'Itxaroten' lana eskainiko du helduen taldeak.

### Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata, 20:00etan

Kukuka Antzerki eta dantza taldearen

hamabostaldiaren baitan, Dantzaz Blai eguna. Dantza garaikideko ikasleek euren emanaldia eskainiko dute.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 12:30ean

Kukuka Antzerki eta dantza taldearen hamabostaldiaren baitan, Dantzaz Blai eguna. Euskal Dantzako ikasleek emanaldia eskainiko dute.

Igandea, 19:00etan

Kukuka Antzerki eta dantza taldearen

hamabostaldiaren baitan, Euskal Dantzako sorkuntzako emanaldia.

### Musika

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Larunbata, 20:00etan

Alboka Abesbatzak ikasturte amaiera-kontzertua eskainiko du.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena eta asteartea, 19:00etan

Udal Musika eskolako kideek ikasturte amaierako emanaldiak eskainiko dituzte. Astearteko saioan, diploma banaketa izango da.

ATSOBAKAR ZAHAR-ETXEA

Asteazkena, 18:00etan

Biyak Bat elkarteko abesbatzaren emanaldiaz gozatuko dute egoiliar eta familiarek.

### Scooter Rallya

JAIZKIBEL PLAZA

Gaur, 19:00etan

Motorren harrera eta erakusketa.

BUENETXEA TABERNA

Gaur, 23:00etan

Bartzelonako Mortadela taldearen kontzertua eta ostean, Donostiako Ritxi Skatalite, Logroñoko Jorge Stereo eta Bartzelonako Garduño DJen saioak.

OKENDO PLAZA

Larunbata, 10:30ean

Motorren harrera eta erakusketa.

Larunbata, 12:00etan  
Scooter Run irteera.

ANDAPA KALEA

Larunbata, 18:00etatik 18:30era

Motorren erakusketa eta DJ izateko aukera.

BUENETXEA TABERNA

Larunbata, 23:00etan

Donostiako Lie detectors taldearen kontzertua eta ostean, Bartzelonako Cazorla eta Baionako Roberto Tortuga DJen saioak.

GOLF PLAZA

Igandea, 12:30ean

Motorren erakusketa.

### Gamusinoen gaua

ZABALETA AUZOA

Gaur

20:30ean, kanpinak montatu.

21:30ean, etxetik eramandako janaria afaldu.

22:30ean, gamusinoen bila joan

23:30ean, lotara joan.

09:00etan, gosari gozoa dastatu.

### San Juan Sua

ANDATZA PLAZA

Osteguna 23, 21:30etik aurrera

San Juan bezperako ospakizunak izango dira. Zortzikoa eta soka-dantza dantzatuko dute Erketz eta Erketzeko lagunak taldeko kideek, Zero Sette akordeo oskestra eta Alboka Abesbatzaren laguntzaz. Ostean, sua piztuko da.

## Herritarren txokoa

### Eskutitza

Donostiako Metro igarobidearen proiektuak desadostasun zabalak pizten du hirian. Herritar askoren iritzia argia da gaiari buruz: Donostiak ez du Metrorik behar eta egitasmoa geldiarazi behar da auzi honetan eztabaida eta erabaki prozesu partehartzailerik irekitzeko.

Hainbat galdera eta kritika planteatu dira Eusko Jaurlaritzako sailburu Ana Oregik 2013an "faraonikotzat" jo eta geldiarazi zuen proiektu hau ezbaian jartzeko. "Donostian Metro bat abian jartzeko erabilzaileen azterketa serio bat falta da; lagunen txostenak soilik egiteak ez du balio", ohararazten zuen Gerardo Lertxundi Dbuseko Zuzendari ohiak. "Metro oso garestia litzateke hiriarentzat. Gainera, jendeak nahiago du lurpean sartu gabe bidaiatzea, paisaiari, kaleari eta paseoan dabilen jendeari begira", adierazi zuen halaber Guillermo Peñalosa mugikortasun eta hirigintza arloko aholkulariak Donostiarra egindako bisitan. Azterketa guztien arabera, bestalde, Metroak autobus zerbitzuei kenduko litzieke bidaiariak nagusiki, eta ez ordea ibilgailu pribatuen multzoari. Apustu oker bat da beraz, garraio publikoko bi enpresa lehian jartzera eta Dbus-en lorpenak galtzera eramango litzukeena. Horregatik, Satorralaiak antolaturik Koldo Mitxelena aretoa lepo bete zuen hitzaldi batean, Ander Gortazara arkitektoak soluzioa funtsean Topoaren eta hiriko autobus linea nagusien arteko osagarritasun eraginkorra eta koordinazioa bilatzea dela azaldu zuen, bi garraio sistemen artean aldatzeko puntuak sortuz. "Era honetan, azpiegituretan inbertsio handirik egin behar izan gabe, Topoaren eta autobus lineen erabilera emendatuko litzateke, garraio sare publikoaren iragarritasuna

### METROA DONOSTIAN?

era oso batean hobetu, eta gaur egun autoa erabiltzen duten bidaiariak erakarri".

Donostian lurrazpiko Metroa eraikitzeak ingurune urbanoari eraso egiten dio. Nabarmenak dira eraikuntza-lanek Erdialdetik Amararaino hedatzen diren hareatza eta ibai-marea lurren gainean zimendatuta dagoen hirigunean eragingo litzuketzen arazoak eta ustekabeak. Aurreproiektuak 311 eraikineko zerrenda bat aurkezten du, trazatutik hurbil daudelako kalteak nozitu ditzaketena, eta obrak kostaldeari ere eragingo lioke, Metroa 300 metroko tarte batean Kontxako hondartzaren azpian sartzen baita. Zailtasunekin batera gora egin ohi dute azpiegituren eraikuntza kostuek, eta obra honen metro bakoitzaren gastua 50.000 eurotik gorakoa litzateke, hau da, 200 milioitik gorakoa Lugaritz-Kontxa- Easo tartearen 4 kilometroko ibilbiderako. Horrek baliagarritasun zalantzazkoa duen proiektu batean diru publikoa alferrik gastatzea dakar berekin, gastu sozialak murriztea, eta gizartearentzat egiazki beharrezkoak diren bestelako jardueren kaltetan baliabideak xahutzea.

Donostian Metro bat eraikitzeak ez du justifikaziorik hiriaren tamainaren ikuspegitik. Amarako EuskoTrenen geltoki zentrala hiri-erdi aldera oinez iristeko sarbide bikaina da, non desplazamenduak oinez edo bizikletaz eroso eta arin egin daitezkeen. Metroaren bultzatzaileek esaten dute geltoki hori kendu egin behar dela "fondo de saco" bat delako; baina Eason dau den instalazioekin gaur egun 7'30 minutuko fre-

kuentziak bideratzen dira –eta 5 minutuko frekuentziak ere ahalbidetu litezke–, hain zuzen ere populazioaren tamainari begira nahikoa eta sobera. Geltokian Hendaiaetik datorren Topoa eta Kostaldeko tren batzen dira, eskualdeko bidaiei jarraitasuna emateko aukera dagoelarik tren-aldaketarik egitera behartu gabe. Azken finean, Amarako geltokia garraio-zerbitzu ona eskaintzeko gai da eta Easo Plazan duen koka-penak hiriaren orekan eragin onuragarria du. Aldiz, Erdialde- Kontxan eraiki asmo duten Metro geltokia – 27 metroko sakoneran egin asmo dute hori Urbietan, San Martin, Easo eta Arrasate kaleek mugatzen duten etxadiaren azpian– ez dator bat hirigintza planifikatzeko proposamen orekatu batekin; aitzitik, hiri-erdi aldekoko kongestio arazoak areagotzeaz gain, geltoki zentral horren helburua "hiri-erdi bihotz turistikoaren garapen komertzial indartsu euskarria" ematea da hitzez-hitz. Modu argigarrian, "San Bartolome Muinoan aurrikusitako merkatalguneko soto batera irteten da" zuzenean bidaiarien irteera bat. Hots, espazio urbanoaren merkantilizazioa gogor sustatzen duen eta kolektibitateari kalte handiak egiten dizkioten prozesu espekulatuak laguntzen dien hiri-erdu baten alde egiten da apustu. Metroaren proiektuak Bentaberrin aurrikusitako geltokiari dagokionean, berriz, garraioen arloan egitasmoak aipagai duen betekizuna erraz konplutuko litzateke Lugaritzen Topoaren eta Busaren arteko aldaketa gune bat sortuz, zeinek hiriko periferiatik Unibertsitatera edota Antiguara egiten

diren joan-etorrietan maiztasun handiko autobusez iristeko aukera emango lukeen. Donostialdean eraldakuntza urbanistikoekin eta Metroa bezalako azpiegituren handien proiektuekin lotutako arazoak ditugu aurrez aurre, hiri ereduaren gainean eragin sakona dutenak. Herritarrek beti "Topoa" esan diogun aldiriko trenaren hobekuntza "Donostialdeko Metroa" izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak helburu propagandistiko argiarekin, 2009an Donostiako Metro pasantearen edo igarobidearen proiektua abiaraztearen ondorioz. Geroztik jendartera zabaldu dute neurritz kanpoko garraio kontzeptu hori, zeinek "Donostiaren eta bere inguruen ikusmolde metropolitanoa indartuko lukeen" bere butzatzaileen esanetan. Alabaina, ez bai handia sortzen duen egitasmo hori ez dago jasota Donostiako Hirigintza Plan Orokorrean, ezta EAeko Trenbideen arloko Plan Sektorialean ere.

Jaurlaritzaren ilunkeriak mesfidantza areagotu besterik ez du egiten. Informazio kontrastatzen daude, obren esleipena eta lanen hastapena aurten iragarri bait dute, nahiz eta finantziario arazoak dituzten eta egitasmoari babes juridikoa emateko ezinbestekoa den trenbideen arloko planaren aldaketa onartzea faltazaien. Gauzak horrela, Donostian Metroa gelditzeko ekainaren 18an eragingo den manifestazioan ahalik eta jende gehien biltzea, bizilagunen mugimenduaren ekimenetan parte hartzea, eta mobilizatzea da Metroaren etorrera atzera botatzeko bidea.

Arantza Zubizarreta eta Fatima Ariztimuño (Satorralaiako partaideak)

**GAURI!**  
AZKEN PLAZAK

**Araeta** -ren ESKUTIK  
AFARI IKUSKIZUNA

*Javi Fermín*

**ANTICUO Club**

IKUSKIZUNAREKIN

INFO//ERRESERBAK:  
943 362 049  
araeta.com

f javiferminmusica

**2 Ray-Ban OPARI**

ERREFLEXUEN AURKAKO  
LEIARRAK EROSTEAN

Ray-Ban  
MONTURA 1  
+  
Ray-Ban  
EGUZKITAKO 1

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE**

**MULTIOPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRETERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. 2016ko abuztuaren 31 arte egongo da balioz. Ezin da beste eskaintza batzuetan erabili.

**2 ETA 3 GELAKO ETXEBIZITZAK  
4 GELAKO ATIKOAK, GARAJEAK ETA LOKALAK**

**SALGAI!**



**ZUBIEDER**  
CONSTRUCCIONES

☎ 609 000 140

PROMOCIONES LANONDO, S.L.  
**LANONDO**